

Joseba Jauregizar

Eusko Jaurlaritzako Teknologia zuzendaria

«Berrikuntzan lehenak izateko bidea maratoni bat izango da»

«Ez dakit 2010erako berrikuntzaren Europako erreferentia izatera iritsiko garen, baina 2015erako, seguru baietz», aldarrikatu du Teknologia zuzendariak.

// I. S.

EAEko ekonomiaren egitura zientzia eta teknologia mailan eraldatzeko oinarriak badirela uste du Joseba Jauregizar Eusko Jaurlaritzako Teknologia zuzendariak. 2010 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak 6.000 milioi eurotik gora zeregin horretara bideratuko ditu.

Bigarren eraldaketa ekonomiko egin behar dela diozue. Badira oinarriak geure hezkuntza sisteman eta egitura produktiboan horri heltzeko?

Herrialde honetan, nik uste, bigarren eraldaketa hori egiteko oinarri nahikoak badira, baina horrek

ez du esan nahi apustu irmoa beharrezkoa ez denik. Duela 25 urte non geunden ikustea besterik ez dago. Basamortu teknologikoa zen, ez zegoen unibertsitate publikorik, ezta ikerkuntza zentro egonkorrik ere. Gaur egun, aldaketari heltzeko egoera nahiko osasuntsua dugu, baina horrek ez du esan nahi Europako herrialde aurreratuenen pare gaudenik. Bide luzea dago egiteko.

Lehendakariak esan du helburua Europako «erreferentia» izatea dela, eta ez «erreferente bat». Nola lortzen da hori?

Europako eskualdeen berrikuntza egoera neurtzen duen indizean 55. postuan gaude. Hortaz bide luzea da, maratoni bat, berrikuntzan lehenak izateko. Lehenbiziko kontua da urrunago iristeko gai garela sinestea. Ez dakit 2010ean berrikuntzaren erreferentia izatera iritsiko garen, baina 2015erako, seguru baietz. Aldaketa asko egin ditugu. Esaterako, duela laupabost urte ez ginen inor biozientzietan, eta gaur egun bioeskualde txiki bat gara Europako mapan, hiru hilabetean behin alor horretako enpresa bat

sortzen dugu. Ahalmen horretan sinesten badugu, seguru lortuko dugula.

Maratoia aipatu duzu. Lasterketa horretara beste korrikalari batzuk batu dira – Txina, India edo Errusia –, giza baliabide askorekin. Euskal Herrian, aldiz, gero eta ikasle gutxiago ditugu.

Geure jaiotze tasa izan zenekoa da, eta hori traba bat da, baina gaur egun garrantzitsua ez da soilik geure populazioaren gaitasuna, kanpotik ere talentua erakartzen jakin behar dugu. EAE erakargarria da atzerriko ikertzaileentzat, baina berariazko estrategiak behar dira horretarako. Biozientzietan, besteak beste, mundu osoko 77 ikerlari etorri dira, proiektu bat ikusi dutelako. Are gehiago, atzerriar zeuden hogeitaz hamar ikerlari ere itzuli dira. Herrialdeak asko ireki dira talentuak hartzeko eta erakartzeko.

Europa mailan estrategia hori sustatzea beharrezkotzat jotzen duzue?

Europa atzerapenez mugitzen da, baina orain, esaterako, Ikerlariaren Agiria definitzen ari da. Mun-



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

du ireki honetan ikerlariari alde batetik bestera mugitzea erraztu behar diegu. Orain arte erraztasun hori zuten bakarrak futbolariak ziren, ikerlariak trabak baino ez zituzten bitartean.

Oraindik ikasten ari diren gazteen %30 inguruk zientzietako ikasketak edo karrera teknikoak aukeratzeko dituzte. Nahikoa da eraldaketa ekonomiko horri begira?

Egia da profesional eta bokazio falta dagoela fisikan, kimikan, matematiketan edo ingeniartzan. Oro har, zientzia guztietan, eta ez soilik EAE gertatzen, baizik eta Europa guztian ere. Gizartea erosokerian erori da neurri batean, eta ikasketa horiek gogorragoak direla badakigu. Bestalde, egia da ere ikerlari izateko ez dela toki nahikorik izan, edota enpresetan ikertzen jarrai-

tzeko aukera gutxiago egon direla. Hemen enpresetan dauden ikerlariak sistema guztiaren %40 dira, beste herrialdeetan kopuru hori %60 inguru denean. Tarteka, zentro teknologikoetan edo unibertsitatean daudenak ordezkatu behar dira, eta gurean hasi gara profesional kualifikatu behar hori nabaritzen. Arazoa orokorra da, Alemanian ere antzera dabilta. Zientzia eta teknologiako katedra horien balioa aldarrikatu behar dugu, gizarte industrial baten etorkizuna hor jokatzen delako.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren diagnostikoa irakurrita, badirudi bidegurutze batean gaudela. Ikasketa maila oso altua duen herrialde gara, baina gero hori ez da egitura produktiboan islatzen, esaterako.

Ahulezia horiek ere geuk sumatzen ditugu. Esan genezake ezagutzaren sorkuntzan ondo gaudela, salbuespenak salbuespen, baina gero horren emaitzak ez dira praktikan hain onak. Patenteetan edo presentzia globala duten goi-teknologiako enpresen sorreran hori bistan da, emaitza mugatuak ditugu. Plan horren helburuetako bat da politika zientifiko eta teknologiko hori emaitzetara gehiago bideratzea. Berrikuntzan hobetuko bagara, neurgailu horiek aldatu beharra dago. Esaterako, zentro teknologikoak emaitzen arabera finantzatzeko asmoa dugu. Baina ezin da ahaztu horri bestelako elementu bat ere gehitu behar zaiola: berrikuntza ezin da soilik maila horretan geratu, enpresa txiki eta ertainetara ere iritsi behar dugu.

BIDEGURUTZEKO GELTOKIAN

Euskal ekonomia eraldatzeko aukeraz mintzo dira Zurbano eta Gallastegi ekonomialariak.

// I. S.

Euskal ekonomia eraldatzeko borondatea, hitzez eta idatziz, adierazi dute administrazio publikoak. Gizarte berritzaile bat eraikitzea egi da helburua. Teoriatik errealitate-ra, ordea, bide luzea dago. Bidegurutzeko geltokian geundeke. Behintzat, aldaketa hori gauzatzeko oinarriak dauden edo ez aztertu dute Mikel Zurbano eta Mari Carmen Gallastegi ekonomialariek.

Industria birmoldaketak euskal ekonomia, EAEn gutxienez, benetan aldatu ote zuen zalantza jarri

du Zurbano. Izan ere, egitura produktiboaren kopuru orokorrak aintzat hartzen badira, sektoreen pisua ez da gehiegi aldatu azken 20-30 urteetan.

Zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko oraingo ahaleginean, berriz, enpresen mundura gehiegi begiratzen zaiola uste du. «Etorkizunerako berrikuntza integratu bati ateak ez zaizkio gehiegi irekitzen». Atzerriko ereduetan, batez ere Txinan, arrisku hori ikusten du, berrikuntza ez baldin bada gizarte kohesioarekin bateratzen. «Epe laburrera emaitzak ikusgarriak izan daitezke, baina bi abiadura dituen gizartea sortzeko porroterako elementu guztiak ditu».

Metalgintzaren eta makina-erremintaren, produktuen, garaia gaitzetea «zaila» izango dela uste du Mari Carmen Gallastegi Ekonomia katedradunak eta Ikerbasqueko presidentek. «Eraldaketa honetan ideiak, ezagutza, berrikun-

tza eta ikerkuntza oinarriak izango dira, eta horietan orain arte inbertitu izan bada ere, askoz gehiago egin beharko da».

Bi adituen irudiko, hezkuntza sistema indartzea ezinbestekoa izango da benetako emaitzak lortu nahi badira. Gallastegiren aburuz, oraindik ere ikasketa jakin batzuk aukeratzeak dituen ondorioak ez dira behar bezala azaldu. «Ezagutza, sormena izatea, ibilbide profesional ona izateko oinarria izan daitekeela transmititzea ez da batere erraza oraindik». Gainera, aurrerantzean goi-mailako ikasketa batzuk burutzeak ez duela ezer bermatzen ohartarazi du. «Karre bat ikasteaz gain, pertsona sortzailea, originala, izateko ezagutza batzuk eskuratu beharko dituzu. Azken finean, berritzaile izatearen kontzeptua zeureganatu beharko duzu».

Trabak ere ez dira falta asmoak eta politika egokiak gauzatzeko. Asteon 28 urte bete dira Gernikako



«Ideiak, ezagutza eta ikerkuntza oinarriak dira aldatzeko, eta horietan inbertitu beharko da»

MARI CARMEN GALLASTEGI
EKONOMIA KATEDRADUNA



«CSICen edo CNRSren antzeko erakundea behar dugu, sistema osoaren bizkarrezura izan dadin»

MIKEL ZURBANO
EKONOMIA DOKTOREA

Estatutua onartu zenetik. Agiri horren arabera, ikerketako eskumen osoa dagokio Euskal Autonomia Erkidegoari. Ia hiru hamarkada eta gero, eskualdatzea ez da gertatu, eta ez dago hori luze gabe gertatuko den pentsatzeko arrazoirik. «Nahiko dramatikoak dira oraindik horrela egotea», dio Zurbano. «Dirua Kupoaren bidez Madrildi ordaindu bai, baina ondoren ez da ezer itzultzen».

Berrikuntza integrala ulertzeko duen ereduari, Zurbano Espainiako CSICen edo Frantziako CNRSren antzeko erakunde dinamizatzaile baten beharra premiazkoa iruditzen zaio. «Sistema osoaren bizkarrezura litzateke, eta ez soilik enpresentzat berrikuntza aplikatuak lortzeko». Eskumena-arena arazotzat jo du Gallastegik, baina Ikerbasque edo Berrikuntzaren Euskal Agentzia gabezia hori zuzentzeko urratsak iruditzen zaizkio. Esaterako, Ikerbasqueren buru ere bada Gallastegi, atzerriko ikertzaileak EAEn erakartzeko asmoa duen erakundea.

Apustua gauzatzeko, enpresari ere mezu argia bidali die Zurbano. «Hor dago Irlandaren adibidea. Berrikuntzaren ildoan lehia nahi baduzu, kalitatezko lana eta hezitutako langileek baldintza egokiak izatea nahitaezkoa da».